

ABERRI EGUNA 2006



ABERRIA ERAIKITZEN

Aberri Egunaren ospakizuna Euskal Herri osoan itxaropenez beteta bizi ditugun uneekin bat eginda datorkigu. Indarkeria armaturik gabeko egoera dugu, nahiz eta oraindik behin betikoa ez den. Gure herriaren dinamikak bakea finkatu eta euskal gizartearentzat normalizazio politikoa lortzeko egoera lortzera bideratzen hasiak gara. Bide hori egiten asmatzearen mende egongo da, neurri handi batean, gure etorkizuna eta gerora etorriko diren belaunaldietako euskaldunena.

Egoera berria sendotu eta gatazka egoerak behin betiko gainditzeko lanean aritzearekin batera, beti gogoan izan behar dugu herria eraikitzea, nazioa eraikitzea eguneroko lana dela eta konpromiso militantearen beharra duela. Are gehiago gainera, nazioartean aldaketak eta globalizazioa gertatzen ari diren une hauetan, inoiz baino garbiago izan behar dugu gure kultur errealitatea, gure hizkuntza, gure nortasuna sendotzeak duen garrantzia. Historiako gertakari handiak gainditu eta bizirik iraun dugun nazio bat gara. 2006ko Aberri Eguna, nazioa berresteko eguna dugu eta, bide batez, itxaropen eta bakerako itxaropen sendoen egoera honetan, gure konpromisoak berretsi nahi ditugu:

Elkarrizketan, akordioan, elkar ulertzean eta Euskal Herriak oraindik ere konpontzeko dituen arazo politiko handientzat irtenbide adostuak eta behin betirakoak lortzeko ahaleginean oinarritutako bake prozesua sendotzeko konpromisoa. Kontuan izanik elkar ulertze horretarako oinarri sendo horiek honakoak izango direla: inposaketarik eza, proiektu politiko guztiak defenditu eta gauzatzearen zilegitasuna, euskaldunon geuron ahalmena haien gaineko erabakiak hartzeko, bai eta esparru juridikoak euskaldunok prozesu demokratiko batean erabakiko dugunera egokitzea ere.

Gure lana areagotu eta gure nortasun, kultura eta hizkuntza bultzatzearen alde aurrera egiten jarraitzeko konpromisoa, gure nazio errealitatea sendotzeko eta pertsona eta lurraldeen arteko solidaritate loturak indartzeko oinarri moduan, beti ere gizarte bidezkoagoa, solidarioagoa eta elkartuagoa eraikitzeko oinarri izan dadin, gainerako herriekin harmonian.

2006ko Aberri Egun hau itxaropenerako garaia da eta, batik bat, konpromisorako eta lan eraikitzaileko garaia. Aukera honi ezin diogu alde egiten utzi. Euskal hautetsiok gure ahalegin eta nahimenak elkartu egin behar ditugu Euskal Nazioaren aldeko konpromiso horretan, eta normalizazio politikoaren eta hain gogoko dugun adiskidetzaren konpromisoan.

Trebiñon, 2006ko apirilaren 16an